

Zientziaren asteak arrakasta handia izan du.

2010/11/03

Zientzia, berrikuntza eta teknologia era didaktikoan gizarteratu nahian, Mondragon Unibertsitateak hainbat ekintza antolatu ditu 10. Zientziaren astea ospatzeko. Erakustaldi hauek Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan izan dira azaroaren 15etik 19ra bitartean.

Erakusketan Mondragoneko ibilgailu elektriko berria, City Car, aurkeztu zen. Ibilgailu honen fabrikazioan Mondragon Unibertsitateak parte hartu du. Duela 14 urte Mondragon Unibertsitateak garatutako Zeus kotxe elektriko modelo ere ikusgai zegoen beste ibilgailu klasiko batzuekin batera. Honekin azken 50 urtetan ibilgailuen izandako bilakaera plasmatu nahi zen.

Honetaz gain, bisitariak telekomunikazio, konformazio eta mekanizatu laborategietan hurrengo esperimenduak ikusi ahal izan zituzten:

- Telekomunikazio laborategian: auto telegidatuen kontrola, ultrasoinuen neurketa, ate kontrolak telefono mugikor bidez, ikasleek egindako walki talkei-ak, bideo-jolasak, 3Dko objektuak sortzea, wifi bidez telegidatutako kotxea.
- Konformazio laborategian: metalen errektuntza, presio bidezko txapa puztea.
- Mekanizatu laborategian: laserrarekin hortz-inplantea egitea.

